
Mikel Carcedo Mitxelena gogoan

Julian Albistur Aranburu



Mikel Carcedo Mitxelena



1999. Mikel herriarteko bertso-saioan entzule



1999. Mikel gai-jartzaile Txantxangorri Sarian

Martxoaren 26an, udaberriaren hasierako igandean, Koldo Mitxelena hizkuntzalari handiaren omenez eraikitako eskulturaren inaugurazio egunean, berri txar bat jaso genuen: Mikel Carcedo herritarrak utzi gintuen, ustekabean.

Mikel bertsozalea zen, gaztetan Xenpelar Bertso Eskolako ikasle izana. Geroago beste arlo asko jorratu zituen bizitzan. Bertsolaritzatik eta euskalgintzatik elkar ezagutu genuen. Berarekin harreman estuagoa izan zutenek sakonago idatziko dute bere bizitzari buruz aldizkari honetan. Nire aldetik, bertso-sorta hau eskaini nahi diot, esker onez.

Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Pozaren iraupen motza
entzunez berri mingotsa,
bizitza baita zorrotza.
Kulturgintzako jardunarekin
Carcedoren heriotza:
egun berean hilotza;
minberaturik bihotza,
eten zitzaigun ahotsa.

3

Udaberria hasita
heriok egin bisita:
hogeita seian zen zita.
Azken bidaia, hemen emazte
eta semea utzita
minez bihotzak hautsita,
lagunak etsi-etsita,
ezin zuten sinetsi-ta.

5

Sendoa zen zutabea,
harrokeririk gabea,
gizarte mailan trebea.
Berdintasuna, aniztasuna...
aldarrikatzen fedea,
murgiltzen zen partaidea:
beti urratuz bidea
osatu ibilbidea.

7

Txapelaren inguruan
ideiak garbi buruan,
beti modu seguruan.
Etorkinekin eredugarri
gizarteratze-gudian,
fin ezagutu genduan
amesten zuen moduan:
askatasunez munduan.

2

Igandez ospakizuna,
eguerdian zen jarduna,
bertan jende ezaguna:
eskultura bat jarriz omendu
zen Mitxelena kuttuna.
Gero ilundu eguna,
joan zelako laguna:
Mikel gizon txapelduna!

4

Maitatzen zuen herria,
bihotzeko aberria,
baita ere baserria:
landa berdeak, zuhaitz, loreak
apainduz udaberria...
Natura gustagarria:
mendi, harkaitz nahiz harria,
dena baita ongarrria.

6

Zinegotzi politikan,
ideiak jarriz praktikan
dirurik gabe patrikan.
Mundu hobe bat amesten zuen
beste gauzen gainetikan,
saltzen ez dena botikan
hark zeraman genetikan.
Nota bikaina etikan.

8

Pertsona eskuzabala,
jatorra eta leiala,
zintzoa bezain apala.
Tratuan oso gizon samurra,
ikur balore-eskala;
enbor oneko ezpala,
ez denez izan makala,
saria jaso dezala.



1997. Mikel Jexux Mari Irazuri saria ematen



1997. Mikel Nikolas Zendoari saria ematen

9

Mantentzen zuena hitza,
maitatuz bertsolaritza,
euskara zein kulturgintza.
Agurtu gabe azkar joan da
nahiz zirudien haritza,
utzirik mila ekintza,
ulertezinik gabiltza.
Zein gogorra den bizitza!